



276/2022 EBAZPENA, martxoaren 4koa, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko ESiko Ospitalizazio/Kanpo Kontsulten (Integrazio Asistentziala) eremuko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen azaroaren 17ko 1565/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Ospitalizazio/Kanpo Kontsulten (Integrazio Asistentziala) eremuko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urtarrilaren 19ko EHAA, 12. zk., eta 2022ko urtarrilaren 26ko BOE, 22. zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko otsailaren 16an amaitu zen.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen otsailaren 17ko 142/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ospitalizazio/Kanpo Kontsulten (Integrazio Asistentziala) eremuko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina).


Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)



Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, 2022ko martxoaren 4a.



Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari-gerentea,
Jon Guajardo Remacha



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIKO OSPITALIZAZIO/KANPO KONTSULTEN
(INTEGRAZIO ASISTENTZIALA) EREMUKO KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA
TRAUMATOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Isidoro Calvo Lorenzo

Baztertuak:

- Inor ere ez

II. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAKO ESiko OSPITALIZAZIO/KANPO KONTSULTEN
(INTEGRAZIO ASISTENTZIALA) EREMUKO KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA
TRAUMATOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Presidentea

Titularra: David CANTERO GONZALEZ jauna

Ordezkoa: Amaia ETXEBARRIA ALTUNA andrea

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Ana María IRUARRIZAGA DIEZ andrea

Ordezkoa: Lorenzo RODRIGUEZ GONZALEZ jauna

Bigarren batzordekidea

Titularra: Josu Luis MARTINEZ DE LOS MOZOS jauna

Ordezkoa: Pedro Ignacio RUIZ MONEO jauna

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Olga ESPINAZO ARCE andrea

Ordezkoa: Iñigo HERRERA CUEVAS jauna

Laugarren batzordekidea

Titularra: Anibal RUIZ SANCHEZ jauna

Ordezkoa: Javier GONZALEZ ACHA jauna

Idazkaria:

Titularra: Miren Amaya DE ALLENDE ACHALANDABASO andrea

Ordezkoa: Maite YEREGUI HUARTE andrea